

# KONTZEJUPETIK

OÑATIKO UDAL ALDIZKARIA

2022ko urtarrila / 323. zenbakia

[www.oñati.eus](http://www.oñati.eus)  



# App berria

Eskuragarri dago jada Oñatiko udalaren mugikorrerako aplikazioa

# MUGIKORRERAKO APLIKAZIOA AURKEZTU DU UDALAK

► Erabilera errazeko App-a da, Udalaren eta herritarren arteko komunikazioa hobetzea eta eraginkorragoa bilakatzea helburu duena ► Dohainik deskargatu daiteke eta gure interesen arabera jakinarazpenak jasotzeko aukera ematen du.



Azken urteotan ahalegin berezia egiten ari da Udala, herritarrekiko distantzia murriztu eta bien arteko komunikazioa hobetzeko helburuarekin. Ildo horretan, udal webgunea ([www.oñati.eus](http://www.oñati.eus)) berritu zuen maiatzean, eta orain urrats bat haratago joan nahi izan du telefono mugikorretarako aplikazioa garatuz.

Erabilera errazeko aplikazioa da. Ahalegin berezia egin du horretan Udalak, erabiltzaileen artean profil askotariko herritarrak daudela kontuan hartuz. Helburua da, azken batean, erabiltzaileak ahalik eta errazten aurkitu ahal izatea behar duen informazioa.

Dohainik deskargatu daiteke aplikazioa *Google play* edo *Apple store* bezalako plataformetatik, eta Udaleko nahiz herri mailako azken berriak, deialdiak, mezuak, oharak, agenda...aurkitu ahal izango dugu bertan. Gainera, gure intereseko jakinarazpenak soilik jasotzeko aukera ere ematen du.

## ► 4 ATAL DITU UDALAREN APP-ak



### Albisteak

'Berbia'-n argitaratutako udaleko nahiz herri mailako albisteak aurkituko ditugu Albisteak atalean



### Agenda

Udalak eta herriko beste kultur eragileek antolatutako ekitaldien berri aurkituko dugu. Gainera, **sarrerak online** erosteko plataformara klik bakar batean iristeko aukera ematen du.



### Udala

Hiru azpiatal ditu. Udalaren mezu, ohar eta deialdiak; Tramiteak telematikoki egiteko aukera; Eta udal zerbitzuei buruzko informazioa.



### Ezarpenerak

Erabiltzaileak jaso nahi dituen jakinarazpenak aktibatzeke aukera ematen du.



**Catalana Occidente**

**Mikel Egaña Urrutia**  
Aseguruak

**Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:**

✓ Heriotza	✓ Istripuak	✓ Etxebizitza
✓ Autoak	✓ Ontziak	✓ Aurrezkia
✓ Bizitza	✓ Osasuna	✓ Laborantza

Helbide: Moxon 5, behea  
638 16 79 84  
[mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com](mailto:mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com)



PINTURAS  
**URBIA**  
MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15



Erdigunetik 2km-tara, kalitate goreneko 6 logela (banakoak edo bikoitzak),  
2 suit hidromasaje eta sukaldearekin eta logela laukoitz bat.  
Produktu naturalekin prestaturiko afari eta gosari osasungarriak.



Garagaltza, 21 · 20560 Oñati · Gipuzkoa · T. 943 783657 / 646 023570  
info@casaruralarregi.es ■ [www.casaruralarregi.es](http://www.casaruralarregi.es)



Immigrazioaren  
Nazioarteko  
Erakundeak  
emandako datu  
ofzialen arabera,  
2013tik hona  
23.000 pertsona  
inguru ito dira  
Mediterraneo  
itsasoan

**PELLO GORROTXATEGI / SMHko zuzendaritza taldeko kidea**

***"Zenbat eta pertsona gehiago salbatu hobe,  
noski, baina horrekin batera sentsibilizazio  
lana ere beharrezkoa da, Europako migrazio  
politikak aldarazi nahi baditugu"***

**H**otz-Oñati taldeak elkartasun kanpaina bat jarri du abian, **SMH-Aita Mari** ontziak Mediterraneoan erreskatatzen dituen etorkinentzako duintasun kit edo motxilak bidaltzeko helburuarekin. Eta ekimen horrek bidea ireki digu Aita Mari ontziak eta SMH (Itsas Salbamendu Humanitarioa) gobernuz kanpoko erakundeak egiten duen lana gertutik ezagutzeko oñatiar baten bitartez. Pello Gorrotxategi (Oñati, 1958) SMHko zuzendaitza taldeko kidea da martxoaz geroztik, eta berak azaldu digu non eta nola egiten dituen erreskateak Aita Mari ontziak, zein lan egiten duen SMH-k Chios-eko (Grezia) errefuxiatuen kanpalekuan (Vial), eta zein beharrezkoa den sentsibilizazio lana, Europako agintariei presioa egin eta migrazio politikak aldarazi nahi baditugu.

*Urte askotan zuekin*

☎ 688 764 299

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • [www.mapfre.es](http://www.mapfre.es)

Jaione San Miguel Ugarte



**MAPFRE**  
OÑATI

### Noiztik eta zergatik zara SMHko kide?

2017-2018an egin nintzen SMHko kide, proiektuarekin identifikatuta sentitzen nintzelako, eta nire bizitza beti egon delako zuzenduta beharra daukanari laguntzera. Harrezkero, proiektu eta lan ezberdinetan lagundu izan dut, boluntario gisa beti ere: Aita Mari ontziarentzako logistika lanetan, sentsibilizazio mailako hitzaldiak ematen, edo Chios-eko (Grezia) kanpalekuan ditugun mediku eta erizainei laguntzen.

Iragan martxoaz geroztik SMHko zuzendaritza taldean nago, (Izaskun Arriaranen gidaritzapean) eta hurrengo urteetarako plan estrategikoa lantzen jardun dut, beste hainbat bazkide eta boluntarioekin batera.

### Aita Mari erreskate ontzia da SMHren ikur nagusia egun. 2019ko amaieratik hona 6 misio edo erreskatetan parte hartu du, eta 538 pertsona erreskatatu ditu Mediterraneo itsasoan. Zein da ontziaren dinamika?

Burrianako (Castelló) portuan egoten da ontzia eta handik iristen da erreskateak egitera. Euskal Herriatik atera beharko balitz, askoz ere egun gehiago beharko lituzke erreskate guneetara iristeko, eta horregatik daukagu Burrianan.

Erreskateak egitera Libiako iparraldean, Tunisia eta Malta artean dagoen SAR (Search and Rescue) gunera joaten da Aita Mari, erdialdeko Mediterraneoko migrazio bidera (ikus mapak). Itsasoa SAR guneetan antolatuta dago, eta gune horietako erreskatearen ardura herrialde jakin bati dagokio, teoriarik. Beraz, errefuxiatuen patera edo ontzi bat aurkitzen dugunean herrialde horretako agintariei jakinarazi behar diegu, erreskateak egin aurretik. Egoera oso larria bada, aurrena erreskatatu egiten ditugu, jakina. Eta Libiako uretan baldin bada, ez dugu hara deitzen, han ez direlako giza eskubideak errespetatzen.



### Libia, Tunisia eta Malta arteko gunean aritzen da Aita Mari ontzia

Erdialdeko Mediterraneoko migrazio bidea zaindu ohi du Aita Mari ontziak, Libia, Tunisia eta Malta arteko SAR (Search and Rescue) erreskate guneetan. 2019ko urte amaieratik gaur arte 6 misio egin ditu eta 534 pertsona erreskatatu.



PELLO GORROTXATEGI

➔ **Segurtasunaren izenean gizatasuna kendu nahi digute, eta, nire ustez, osagarriak izan behar dira. Segurtasuna beharrezkoa da, baina ez giza eskubideen kaltetan**

### Urtean 3 misio edo erreskate egiten ditu Aita Mari ontziak. Zeren arabera?

Alde batetik, administrazioaren baimenen arabera. Inspekzio oso zorrotzak pasa behar izaten ditu ontziak eta, gainera, tramite administratiboak nahi baino gehiago luzatu ohi dira.

Bestalde, gure baliabideek ere baldintzatzen dute Aita Mari ontziaren jarduna. Egin kontu, halako barku bat itsasoan edukitzeak eguneko 2.000 euro inguruko kostua duela, eta misio bakoitza 30-40 eguneko izaten dela.

Bost bat egun behar izaten dira Burrianatik SAR gunera iristeko; han hamar bat egunez egoten da barkua, gehienez, eta ontziren bat aurkituz gero, normalean beste bost bat egun behar izaten dira porturen batera eramateko baimena jaso arte. Orain, gainera, COVID-19a dela eta, batzuetan koarentenan egon beharra izaten da.

Gure helburua da urtean 3 misio egitea, gutxienez, eta 5era iristen bagara, primeran. Azken batean, gurea organizazio txiki bat da, eta neurtu egin behar ditugu indarrak.

Garbi eduki behar da, gainera, erreskate lana inportantea dela, jakina, baina, horrekin batera, sentsibilizazio lana ere behar beharrezkoa dela. Aita Mari egiten duen lana oso ondo dago, noski, zenbat eta bizitza gehiago salbatu hobea, baina horrek balio behar du gizartea sentsibilizatzeko eta Europako agintariei presioa egiteko, migrazio politikak aldatzeko eta, azken batean, jende gutxiago hiltzeko.

### Esan duzu Aita Mari ontziaren misio bakoitzak kostu handia duela. Nola moldatzen zarete horri aurre egiteko?

Erakunde publikoak dira gure diru-iturri nagusiak: Eusko Jaurlaritza, Nafarroako gobernua, eta Euskal Herriko hainbat udaletxe,

tartean Oñatikoa.

Horiez gain, bazkideen ekarpenak ditugu, eta aipatu nahi nuke, adibidez, Oñatiko LANA enpresarena. Moja beneditarrek ere ematen digute laguntza, eta estimatzen da, benetan. Edozein modutan, gure diru-iturri nagusia publikoa da gaur egun, eta eskertzen dugu, nola ez, baina gurako genuke oreka handiagoa lortzea finantziario publiko eta pribatuaren artean, lan gehiago egin ahal izateko. Uste dut merezi duela gizarteari erakustea zer gertatzen ari den gure mugetatik hurbil, eta nora iritsi gaitzkeen isilik gelditzen bagara. Agintariei ez zaie gustatzen gure lana eta gure testigantza, baina guk jarraitu egingo dugu Mediterraneoan gertatzen ari dena salatzen.

#### Daturik ba al dago Mediterraneoan gertatzen ari denaren inguruan?

Immigrazioaren Nazioarteko Erakundeak emandako datuen arabera, 2015etik hona 23.000 pertsona ito dira Mediterraneoan. Horiek datu ofizialak dira, baina zenbat hilko ziren inor enteratu barik? Auskalo!

2017-2019 artean Egeo itsasoan jardun zuen SMHk beste salbamendu ontzi batekin aliantzan, eta han 1.000 pertsona inguru erreskatatu genituen. Mediterraneoan gaudenetik 538 lagun atera ditugu itsasotik.

Gurea, esan bezala, itsasontzi txiki bat da eta, gehienez, 150 lagun erreskatatzeko baimena du, baina Aita Marirekin batera beste ontzi batzuk ere ari dira, guk baino baliabide gehiago dituztenak: Ocean Viking, Open Arms, Alan Kurdi, Sea Watch, Louis Michel...

#### OSASUN ZERBITZUA CHIOS-en

Aita Mari ontziaz berba egin dugu orain arte, baina SMH erakundeak Quios-eko (Grezia) errefuxiatuentzako kanpalekuan ere ari da lanean, ezta?



Aita Mari ontziak bere azken misioan erreskatatutako txalupa



**Urtean, gutxienez, hiru misio edo erreskate egitea da gure helburua, eta bostera iristen bagara, primeran. Organizazio txiki bat gara eta neurtu egin behar ditugu gure indarrak, baina merezi du Mediterraneoan gertatzen ari dena erakustea eta salatzea**



Quios-eko (Grezia) errefuxiatuentzako Vial kanpalekuko irudia



**Quios-eko (Grezia) Vial kanpalekuan dauden errefuxiatuei osasun arreta emateaz arduratzen gara: eguneroko kontsultak, sendagaien hornikuntza, larrialdiak... Dentista zerbitzua ere ematen dugu, eta emakumeak ahalduentzako programa bar ere jarri dugu abian azken urteotan**

Bai, 2015ean iritsi zen SMH Quios-era. Hasieran, erreskate lanetan jardun genuen, Egeo itsasoan barrena iristen ziren txalupen segurtasunez lurreratzeko laguntzen eta larrialdiak atzartzen.

Gero gure lana eboluzionatuz joan zen eta, 2016az geroztik Vial-eko kanpalekuan dauden errefuxiatuei osasun arreta eskaintzeaz arduratzen gara: eguneroko kontsultak, gaixo kronikoen jarraipena, sendagaien hornikuntza, larrialdiak... Gainera, aho eta hortzen osasunarekin lotutako zerbitzua ere ematen dugu (asko eskertzen dute errefuxiatuek), eta azken urteotan emakumeak ahalduentzako programa bat ere jarri dugu martxan. Hau ere oso lagungarria da ia ia 'Konzentrazio esparru' bihurtu den kanpaleku hartatik asteen bi edo hiru aldiz irteteko aukera duten emakumeentzat. Beraien iritzia kontuan hartzen duen norbait dagoela ikustea oso inportantea da eurentzat.

Greziako gobernuaren oniritziarekin hasi ginen zerbitzu horiek ematen, baina, zoritxarrez, giroa okertuz joan da, eta gero eta presio handiagoa nozitzen ari gara, batez ere errefuxiatuak, baina baita GKE/ONGak ere, ez dutelako lekuko edo testigurik nahi. Kostaldeko zaintza zerbitzuko funtzionarioak ari dira errefuxiatuak hartu eta gomazko txalupetan Egeo itsasoaren erdian uzten. Hori demostratzen duten irudiak daude, eta salaketak ere bai Europako parlamentuan, giza eskubideak urratzen ari direlako.

**Aita Mari ontzia eta Quios-eko osasun programarekin batera, sentsibilizazio lana ere oso garrantzitsua da SMH-rentzat.** Bai, noski, ez badugu kontaktua han gertatzen ari dena, ez dugu ezer lortuko. Erreskateak egitea eta osasun zerbitzua ematea oso inportantea eta beharrezkoa da, noski, baina haratago joan behar dugula uste dut. Europako migrazio politikaren eta eskuin muturreko alderdiak sustatzen

ari diren diskurtso xenofoboaren kontrako argumentuak ipini behar ditugu mahai gainean, "nahikoa da!" esateko. Argi eta garbi esan behar dugu guk ez dugula onartzen horrelako gizarte bat. Hemendik 3-4 ordura gertatzen ari da hori guztiori, Mediterraneoan, Bielorrusian, Grezian... eta gu bitartean harresi gero eta handiagoak eraikitzen. Segurtasunaren izenean humanitatea edo gizatasuna kendu nahi digute, eta nire ustez horiek osagarri izan behar dute; segurtasuna bai, baina ezin dugu jendea itotzen utzi eta ez-ikusiarrena egin handik eta hemendik iristen diren larrialdi dei edo laguntza eskariei.

Beraz, guretzat ezinbestekoa da sentsibilizazioa lantzea eta politikariengan eragiten ahalegintzea. Ildo horretan, hainbat hitzaldi ematen ditugu eskola, unibertsitate eta bestelako zentro edo foroetan, datu objektiboak emanez, nazioarteko legediak dioena azalduz, eta giza eskubideak urratzen ari direla salatuz. Azkenaldian enpresetatik ere ari gara deiak jasotzen, gure ikuspuntua ezagutu nahi dutelako, eta hori ere oso aberasgarria da guretzako.

### Hotz-Oñatik ere antolatu du Aita Mari ontziak erreskatatzen dituen etorkinentzako kit-ak bidaltzeko kanpaina.

Bai, eta eskertzekoa da. Lehenago ere bidali izan dituzte halakoak, eta, egia esan, pozgarria izaten da gero Aita Mari ontzira igotzen diren errefuxiatuak Oñatitik bidalitako arropekin ikustea.

Egia esan, Hotz-Oñati oso lan ona egiten ari da, lankidetzaren proiektu ezberdinetan parte hartuz eta jendearen alde ona atereaz. Lesbosera jakiak bidaltzeko iaz egin zen bilketan neu ere egon nintzen laguntzen, eta gogoan dut 80 bat urteko bi emakumek janariz betetako karro oso bat eman zigutela. Hor ikusten da zelako elkartasuna eta laguntzeko gogoia dagoen herritarren artean. Azken batean, hau kate oso bat da, eta



## HOTZ-OÑATI ETA AITA MARIEN ARTEKO ELKARLANA



Hotz-Oñati taldeak, Enpresagintza fakultateko myGADE graduoko ikasle talde baten laguntzarekin, elkartasun kanpaina bat jarri du abian, Aita Mari ontziak erreskatatzen dituen etorkinentzako duintasun kit-ak bidaltzeko asmoz. Ezkerrekoa bezalako salbamendu gerriko baten irudia sarreran duten establezimenduetan 5€-ko ekarpenak egin ahal izango ditugu eta trukean pultsera hori bat jasoko dugu, elkartasun ikur gisa. Batutako diruarekin ahalik eta kit edo motxila gehien prestatuko ditu Hotz-Oñatik. Kit bakoitzak 15€-ko kostua du eta txandala, kamiseta, oinetakoak, barruko arropak, horzetako pasta, eskuilla, barra energetikoa... daramatza. Kanpaina girotu eta herritarrak sentsibilizatzeko, Kale Barriako Urtaza dendako erakusleihoa apaindu du HOTz-Oñatik.



PELLO  
GORROTXATEGI



**Sentsibilizazio mailan hitzaldiak ematen ari gara unibertsitate, enpresa eta bestelako zentro eta foroetan, nazioarteko legediak dioena azaldu eta eskubideak urratzen ari direla salatzen**

SMH edo Aita Mari katebegi bat gehiago da.

### Zorritzarez, baina, agintariak ez daude sintonia berean.

Ez, elkarri mokoka eta pilota bata besteari pasatzen ari dira beti. Nik lidergo eta solidaritate falta ikusten dut Europako herrialdeen artean. Merkel saiatu zen 2015ean egoia bideratzen, baina herrialde batzuk, batez ere Visegrado ardatzekoak (Polonia, Txekia, Eslovakia eta Hungaria) oposizio gogorra egiten ari dira, migratzaileen kontrako diskurtsoekin. Nire ustez argumentuak bilatzen ari dira Europa osoaren bueltan harresi handi bat eraikitzeko. Segurtasunaren kontua saltzen digute, baina horren atzean dagoen negozioa ere salatu behar da.

Ezin gara identifikatu halako politikariekin. Nora eramanez behar gaituzte! Ezin dugu ahaztu, gurera datozen migratzaileak gerra eta miseriatik ihesi datozela, eta, askotan, Europako herrialdeen interesek sortutako gatazkak direla.

### Zein izan daiteke irtenbidea?

Nik uste dut hiru norabidetan lan egin behar dugula. Alde bateatik, jatorriko herrietan pobrezia aurre egiteko baliabideak eskainiz eta garapen sozioekonomikorako proiektuak sustatuz, adibidez *Mundukide* erakundea egiten ari den moduan Etiopian, Mozambiken...

Bestalde, gerran dauden lekuetan, transitoko edo erdibideko herrialdeetan, giza-pasabide edo korridore seguruak bermatu behar dira, bisatuen politikak malgutuz (Afganistanen lehen momentuan egin zen moduan) jendea bertatik atera ahal izan dadin, bizitza arriskuan jarri beharrik izan gabe.

Eta azkenik, European, migratzaile politikak bateratu, eta migratzaile arazo bezala aurkezten duten diskurtsoak desaktibatuz behar ditugu, asilo eta babes eskubidea posible izan dadin European. Segurtasuna beharrezkoa da, bai, baina ez giza eskubideen kaltetan. Ezin dugu ahaztu gu geu ere migratzaile eta errefuxiatuak izan ginela. ■

# Musika eskolaren etorkizuna marrazteko lanketa saioak

Etorkizuneko **zerbitzuak**, proiektu **pedagogikoa**, **governantza** eredua eta **espazioa** lantzeko bi saio egingo dira, **herritar guztiei irekiak**



## ► LANKETA SAIOAK

- URTARRILAK 19, ASTEAZKENA, 18:30  
'Etorkizuneko zerbitzua eta proiektu pedagogikoa'
- URTARRILAK 28, OSTIRALA, 18:30  
'Etorkizuneko gobernantza eredua eta espazioa'

**Oharra:** lekua zehaztu gabe zegoen aldizkaria ixteko orduan

Azaroko aldizkarian aurreratu genuen moduan, musika eskolaren gaiari irtenbidea eman nahi dio udal gobernu taldeak agintaldia amaitu baino lehen. Gauza jakina da, musika eskolaren gaur egungo eraikinak gabezia asko dituela, irisgarritasunaren aldetik, batez ere, eta ez dela kokaleku egokiena, gaur egungo egoeran behintzat.

Horregatik, Udalak *Hiritik At* enpresa kontratatu du, musika eskolaren egungo egoera aztertu eta etorkizunera begirako hausnarketa estrategikoa bideratzeko. Helburua da, Oñatiko musika eskolara etorkizunean izan beharko lituzkeen zerbitzuak, eskaintza pedagogikoa eta kudeaketa ereduen inguruko gogoeta egitea, eta behar horiei egokien erantzungo dien kokalekua aukeratzea eskolarentzat.



► MAIALEN ARREGI / Hiritik At

Musika eskolari buruzko diagnostikoa herritarrekin partekatu eta etorkizunera begirako gogoeta estrategikoa egitea da bi lanketa saio hauen helburua

Argk.: Bizkaiko Hitza

## LANKETA SAIOAK

*Hiritik At* enpresak hainbat elkarrizketa egin ditu udaleko nahiz musika eskolako hainbat ordezkarekin, eta musikaren arloan esperientzia duten herritar ezberdinekin, eta, dagoeneko, idatzi du musika eskolari buruzko diagnostiko-txostena, lau ardatzen arabera: **Zerbitzuak**, **Proiektu pedagogikoa**, **Governantza eredua** eta **Espazioa** edo kokalekua.

Orain, diagnostiko hori herritarrekin partekatzeko unea iritsi da, eta horretarako bi lanketa saio antolatu dira, herritar guztiei irekiak. Saio bakoitzean bi gai jorratuko dira. Diagnostikoarekin ados ote dauden, eta aldatu edo hobetu daitezkeen gaien inguruko gogoeta partekatua egitea da helburua. Beraz, modu batera edo bestera musika eskolarekin lotura duten herritarrak, edota musikaren inguruan kezka duten pertsona guztiak daude gonbidatuta lanketa saioetan parte hartzera. ■



## ZURICH

M<sup>o</sup> del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea  
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

## HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK  
PERSIANAK, LEHIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...






DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA  
SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GENIAGO  
OLAKUA 12 0 4 esk. - 20560 ONATI - GIPUZKOA  
**695 78 91 04 - 943 04 47 77**





HEZKUNTZA KOOPERATIBA  
EUSKALDUNA

0-1 urte  
Matrikulazioa  
urte osoan zabalik

# Hezkuntza eraldatzen ▶ Matrikulazioa



Bisita gidatuak  
eta **Elkarrizketa**  
pertsonalak



Matrikula epea  
**HH2-DBH4**



Bulego ordutegia: **08:00-18:00** • Tel.: **943 78 12 04** • [txantxiku@ikastola.eus](mailto:txantxiku@ikastola.eus) • [www.txantxikuikastola.eus](http://www.txantxikuikastola.eus)





Iruñea-Nafarroako erresumaren defentsarako eraiki ziren gaztelu nagusiak, 824 -1620. (Beñi Agirre)

# GEUK

zentzuz • gogoz • ekinez

Euskal Herriaren historia ezagutzeko **hitzaldi zikloa** eta **erakusketa** antolatu dute Nabarralderen Oñatiko sustatzaileek

Bere historia ezagutzen ez duen herria ezin izango da bere etorkizunaren jabe izan. Gure herriaren memoria kolektiboa berreskuratzeak eta ezagutzera emateak berebiziko garrantzia du, eta horretan dihardu Nabarralde fundazioak. Testuinguru horretan dator Nabarralderen Oñatiko sustatzaile taldeak antolatu duen hitzaldi zikloa eta erakusketa. Nafarroako erresumaz (euskaldunok sekula eraiki dugun instituziorik handiena —euskal estatua—) eta berau defendatzeko euskal lurralde osoan eraiki ziren gazteluez gehiago jakiteko aukera bikaina.

Jardunaldien hirugarren edizioa dugu aurtengoa. 2020an Erdi Aroko Nafarroako Erresumaren konkistaren mugarriak ikusi genituen, 1200, 1512 eta 1620. Aurreko edizioan berriz, aro modernoko burugabetez prozesuak, Frantziako lehen iraultzarekin (1789) zein Karlistadekin (1833/1872). Gure Konstituzioaren jatorria eta eboluzioa ere ezagutu genituen: Foruak.

Horien aurretik, erromatar inperioa erori ostean, godo, franko eta arabiarren aurrean defendatu behar izan genuen. Orreagako 3. guduaren ostean, 824an, Iruñako Erresuma sortu genuen, Eneko Aritza buru, gure defentsa antolatzeko. Geroago Nafarroako Erresuma bilakatu genuen, orduko euskal lurraldea osotasunean babesteko: 258 gaztelu eraiki genituen gutxienez, gaurko mugetatik kanpo ere.



Beste estatuetan non-nahi ikusten ditugu gazteluak, beren iraganaren ondare eta ikur. Non dira gureak? Oñatin ere baditugu hiruzpalau toponimo, izanaren lekuko. Iñaki Sagredo Gardek 'Navarra: Castillos que defendieron el Reino' liburu bilduman azalatu ditu ehundik gora, horretarako artxibo lanak, hegaldiak eta indusketak uztartuz egindako lan eskergari esker.

Estatu ororen lehen zeregina da defentsa, herritarrak kanpoko erasoen aurrean babestea.

### 'PARADIGMA NAFARRA'

Estatu gabeko Herria garela diogu sarri. 258 gazteluen aztarnak euskal estatuaren presentzia erakusten digute. Eta ez dugu sekula gure Konstituzioaren likidazioa izenpetu. Gogoratu besterik ez dugu duela 500 urte Amaiurren bizitakoa. Independentzia, militariki kendu digute lehenik, eta ondoren, administrazio arrotzetatik dependentzia kudeatu, gaur arte. Luis Maria Martinez Garatek 'Paradigma nafarra' liburuan jasotako enfokeak egungo errealitatea ulergarriago egiten digu.

Aurreko ediziokoa hobetuz, Beñi Agirrek panel informatiboz ondutako 'Habitat' erakusketa ezarriko du, eta ez da bisita gidaturik faltako. Herriko hiru ikastetxeetako DBH4ko ikasleek, ezkutatu diguten historiaren kontakizuna ezagutzeko aukera izango dute. Gainerako herritarrok ere bai. Ongi etorri.

*Nabarralde-Oñati*

## EGITARRAUA

Kultur etxeke zine aretoan eta erakusketa gelan

▶ URTARRILAK 17 - 31 (18:00-20:00)

### ERAKUSKETA: Habitat - Ezkutatu diguten historia

'Habitat' jakin batean gizakiak jokatu duen historia kontatzen da, ekologian ere erabiltzen den habitat kontzeptuarekin batera, gizakiak sortutako hizkuntza, kultura eta erakundeak aztertuz, XIX. mendera arte. [Erakusketa aretoan.](#)

▶ URTARRILAK 17 (18:30)



### BISITA GIDATUA:

#### Habitat - Ezkutatu diguten historia

Nabarraldeko kideek prestatu duten erakusketa interpretatzeko bisita gidatua Beñi Agirreraren eskutik. [Erakusketa aretoan.](#)

▶ URTARRILAK 21 (19:00)

### HITZALDIA: 'Paradigma nafarra. Euskaldunon estatua' ANGEL REKALDE ETA LUIS M<sup>a</sup> MARTINEZ GARATE



Gaur egungo errealitatea ulertzeko modelo edo paradigma desberdinak garatu ditugu garai desberdinetan. Paradigma forala lehenik, bizkaitarra gero, eta nafarra azkenik. Azken honek, Sorauren, Olaizola eta Urzainki bezalako lanekin, osokiago esplikatzeko du prozesu historikoa eta egungo errealitatea. Nafarroako Erresuma, euskaldunok sekula eraiki dugun instituziorik handiena izan da: euskal estatua. [Zine aretoan.](#)

▶ URTARRILAK 28 (19:00)

### HITZALDIA: 'Navarra: castillos que defendieron el Reino' IÑAKI SAGREDO



Iñakik artxibo lana, hegaldiak eta indusketa lana uztartu ditu 258 gazteluren aztarnak topatzeko. Pamiela argialetxearekin 5 liburutik azalatu ditu hainbat eta hainbat. Gazteluen aztarnak, Nafarra Estatuaren baitan eraiki genuen lurraldearen kontrol eta defentsa sistema bistaritzen dute. Beraien kokapenak, orduko euskal lurren mugak, orain baino zabalagoak. [Zine aretoan.](#)

▶ URTARRILAK 31 (18:30)

### BISITA GIDATUA: Habitat - Ezkutatu diguten historia

Erakusketara bisita gidatua Beñi Agirreraren eskutik. [Erakusketa aretoan.](#)



**Gualbi**  
asesores

*Bezeroen beharrei erantzuteko prest!*

Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea  
Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza  
Merkataritza • Abokatuak

Euskadi Etorbidea 6  
T.: 943 781 648  
onati@gualbiasesores.com  
-  
[www.gualbiasesores.com](http://www.gualbiasesores.com)

# Alokairuaren problematika MAHAI GAINERA

Herriko zenbait eragilek **dokumental** bat egin dute Oñatin alokairuko etxebizitzaren inguruan dagoen arazoa gizarteratzeko asmoz. Hainbat herritarren testigantzak jasotzeaz gain, arazoari aurre egiteko balizko irtenbideak ere jarri dituzte mahai gainean.



## DOKUMENTALAREN ESTREINALDIA

**Urtarrilaren 11n eta 12an** aurkeztuko dute dokumentala kultur etxeko zine aretoan (19:00). Ikusi aurrerapena ondorengo QRan



"Oñatin badaku arazo bat. Ez da ikusten, baiña gu danon egunerokotasunian presente dau. Kolektibo zaurgarrixenairi eragitten doste bereziki. Gurera etorritako bizilagun barrixak edota emantzipau gura dauein gaziak, esaterako, pairaketan daue: etxebizitza duin bat topaitteko arazua.(...) Duela urte gutxira arteko dinamika salerosketa izan da, baiña gaur egun bizi dugun prekarizazio, migrazio, bizi-estilo eta familixa mota ezberdiñen areagotzia dala-eta, salerosketaren ereduak ez ditte danon biharrak asketan. Alokairuaren biharrak gora egin dau, baiña Oñatin eztaue eskaintzarik. Bai, ordia, eskarixa, eta ez txikiña".

Horrela hasten da herriko zenbait eragileren artean osatu duten dokumentala. Hainbat herritarren testigantzak eta ikuspuntuak jaso dituzte, batez ere gazteenak, eta baita etorkinenak ere, hauek baitira alokairuaren arazoa gordinen pairatzen duten kolektiboak. Etxejabeen esperientziak ere bildu dituzte.

Ez da ikerketa zientifiko baten emaitza, baina herritarren testigantzen bidez alokairuaren arazoak dituen hari-mutur ezberdinak jorratzen ditu: etxebizitza bat alokatzeko zailtasunak; Oñatin hainbat etxebizitza hutsik egon arren, zergatik den hain urria eskaintza; alokairuen prezioak; etxejabeen beldurrak; alokairua ulertzeko modu ezberdinak; instituzio publikoek joka dezaketen rola...

Alokairuaren problematika gizarteratzea da dokumentalaren helburua, eta ahal den neurrian, arazoa konpondu edo bideratzera zuzendutako herri-dinamikak abiaraztea. Izan ere, etxebizitza pertsona guztien oinarrizko eskubide bat da, behar bat, eta denoi dagokigu konponbide bat ematen saiatzea.

## BATUAK S.L.

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 78 11 15 • [www.batuak.com](http://www.batuak.com)

## HERRITARREN TESTIGANTZAK

Dokumentalean parte hartu duten herritar batzuen ikupuntuak.



**MADDI**

» Nik, oñatiarra ez izate-  
agatik soilik, arazoak  
izan baditut etxebizitza bat  
alokatzeke, ez dut imajinatu nahi  
urrutiagotik datorren norbaitek  
izan ditzakeen zailtasunak.  
Gero denok diogu mundu guztia  
dela ongi etorria, baina kasua  
da norberaren etxean ez dela  
hala izaten. Denok egin beharko  
genuke esfortzu bat pentsamolde  
hori aldatzeko.



**HEDU**

» Udaletxeak inizatiba  
hartu eta, etxe-jabeen  
onespenaz, pisu hutsak  
kudeatzeko ahalegina egingo  
balu, lehen egiten zuen moduan,  
arazo gutxiago leudeke. Baina  
udaletxeak Etxebideri eman  
zion etxebizitzak kudeatzearen  
eskumena, eta hor hasi zen arazoa.  
Udaletxeak ondo ezagutzen  
du Oñatiko problematika, eta  
berak baino hobeto ez ditu inork  
etxebizitzak kudeatuko.



**EÑAUT**

» Herentziaz tokatu zait  
pisu baten jabe izatea.  
Aurretik bizi nintzen lagunekin  
mugitu naiz bertara. Nik, lagunei,  
ez diet pisuaren erabileragatik  
baino kobratzen, pisuan  
ditugun gastuengatik, alegia.  
Erabileragatik alokairuaren gisan,  
badira beste eredu batzuk ere,  
alokairu prezioa soldataren arabera  
jartzearena, adibidez. Izan ere,  
prezioak norberaren baliabideen  
araberakoa beharko luke.



**ANA MARI**

» Amaren etxea hutsik  
geratu eta urtebetera,  
anai-arrebok etxeak gastuak  
baino ez zituela ikusi genuen.  
Orduan planteatu genuen  
alokatzearena. Zerbitzu  
sozialetako aholkularitza baten  
bitartez, prozesu guztia burururik  
genukan bi hilabeteren bueltan.  
Azken finean, etxe bat hutsik  
izatea zama handiagoa da, gastu  
finkoak beti daude hor.




**ALIX**

» Alokairuaren kontua  
oso zentzu mugatuan  
ikusten da: diru-truke baten  
ordainetan etxe batean egoteko  
eskubidea erostearen moduan.  
Baina jendez ez da kontziente,  
askotan, etxea zaintzeak duen  
garrantzia eta balioa. Alokairua,  
dirutan baino, etxe-zaintzaren  
truke ordaintzea bestelako bide  
posible bat litzateke, bi aldeentzat  
onuragarria izango litzatekeena  
gainera.



**MOHAMED**

» Hiru urtez bizi izan naiz  
alokairuan harturiko  
gela batean. Pisu-kideak joan  
zirenean, etxebizitzaren jabeak,  
ezagutzen ninduenez, pisua  
alokairuan hartzeko aukera  
eman zidan. Baina orokorrean,  
halako kasuez gairi, atzeritarra  
zarela ikusten dutenean ezezkoa  
jasotzeko aukera guztiak dituzu.




**COINBROKER**  
OÑATI ASEGURU ARTEKARITZA  
CORREDURIA DE SEGUROS

ASEGURU AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA

ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA

943 089 006 688 774 531 - WHATSAPP

OINATI@COINBROKER.EUS



## JABETZE ESKOLA

## Hiru ikastaro berri, urtarilarekin batera

## NOLA HITZ EGIN JENDAURREAN

Urtarrilak 13-otsailak 17 / ostegunetan (18:00-20:30) / Euskaraz

Jendaurrean berba egiteko trebetasuna eta ziurtasuna garatuko dira ikastaro honetan. Horretarako, beldurrak identifikatu eta aztertu eta horiei aurre egiteko tresnak praktikan jarriko dituzte, betiere generoak komunikazioan duen eragina kontuan hartuz. Horrez gain, diskurtsoaren osakeran ere jarriko dute arreta. Metodologia parte-hartzailea izango da, eta teoria, taldeko hausnarketa, dinamikak eta praktika uztartuko dituzte. Prezioa, 10€.



## NIRE SEXUALITATEA BOTERETZEN

Urtarrilak 21 eta 22 / ostirala (17:30-20:00) eta larunbata (10:00-13:30) / Euskaraz

Zer da niretzako sexualitatea?. Nola bizi dut? Zer erlazio dut nire buruarekin? Eta besteekin? Zer nolako harremana daukat nire gorputzarekin? Eta plazerarekin? Barneko hausnarketa pertsonalak egiteko ekintzak sustatuko dituzte ikastaro



honetan. Horretarako, emakumeok nola gauden eta nola egon nahi dugun eztabaidatuko dugu. Emozioei garrantzia emateko espazio bat sortu nahi da. Zainketa emozionalek, sexuak eta mentalek, duten garrantzia azpimarratuko dute. Prezioa, 5€.

## MUNAY: EMAUKE MIGRATUENTZAKO TAILER PSIKOLOGIKOA

Otsailak 5 eta 6 / Larunbata eta igandea (10:00-13:00) / Gaztelaniaz

Emakume migratuei zuzendutako saioak. Dinamika parte-hartzaileen bidez, migrazio-prozesuei, indarkeria esperientziei eta arrazakeriari lotutako ondorezak eta deserrotzeak landuko ditugu. Konfiantza eta konfidentzialtasun espazio batean, autozainketa psiko-afektiborako tresna eta praktika kolektiboak sortu eta indartuko ditugu. Dohainik.



## IZEN-EMATEAK

Gogoratu, ikastaro bakoitza hasi baino 8 lanegun lehenago amaituko dela izena emateko epea. Udaletxeko HAZ zerbitzuan edo [www.oñati.eus](http://www.oñati.eus) webgunean dago horretarako aukera.

## SOLASALDIA

• ZAURIA(K).  
Eromena. Gorputza.  
Feminismoak.

URTARRILAK 26,  
ZINE ARETOAN, 18:00



Dokumentalaren proiektzioa eta solasaldia.

Eromena, gaizkiegonak eta osasun mentala ikuspegi feminista batetik lantzen duen dokumentala da ZAURIA(K). Sufrimendu psikosoziala eta genero bizipenak uztartzen eta 9 emakumeren\* errealitateak barne hartzen dituena.

## CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

## Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: [inkorta@teleline.es](mailto:inkorta@teleline.es)GARBIKETA  
ADMINISTRAZIOA  
ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarten administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati

ETXE AUNDI JATETXEA | berriz zabalik herritar guztien gozamenerako

# Tradizioa eta kalitatea, oñatiarren zerbitzura



50 lagunentzako jangela moderno eta zabala eskaintzen du jatetxeak

**Profesional gastronomikoen talde bat gara, sektorean ibilbide luzea egina duena eta Donostiako Luis Irizar sukaldaritzza-eskolan jasotako trebakuntza duena.**

Urte askoan elkarrekin lan egin ondoren, finkatu egin gara, eta "Fede Pacha & Co" enpresa sortu dugu. Bertan, **tokiko produktuaren kalitatearen aldeko apustua** egin dugu, Euskal Herriko ekoizleei lehentasuna emanez. Etxe Aundi hotel/jatetxe berrituan proiektu berri bati ekingo diogu. XIII. mendeko eraikin enblematiko batean gaude, espazio ikusgarri batean, eta Gipuzkoaren bihotzean kokatzeko aukera dugu.

**Esperientzia gastronomikoa** eskaintzen dugu: identifikatzen errazak diren **errezeta tradizionalak**, aretoko **zerbitzu profesionala** eta, oro har, esperientzia on baterako leku egokia. Gure proposamenaren barruan, **parrillaren erabilera** azpimarratu nahi dugu, Euskal Herriko kultura gastronomiko tradizionalaren funtsezko osagai gisa, baina produktu guztiak ondo eta merezi duten fintasunarekin lantzen ditugu.

"Fede Pacha & Co" enpresak **tradizioa, zintzotasuna, kalitatea** eta **jasangarritasuna** ditu oinarri. Ingurune osoarekin sinergia bat sortzeko lanean ari gara, enpresa, gizarte eta nekazaritzako elikagaien esparruekin harreman zuzenean.

## EtxeAundi Jatetxea

By FEDE PACHA & Co

### GURE BALOREAK

Kalitatezko janariak, zaporedunak, gertukoak eta garaian garaikoak maite eta defendatzen ditugu.

**FEDE PACHA & Co**  
EGIAZKO ZAPOREAK

Inguruko ekoizle txikiak zaintzen ditugu, eta lagundu ere egiten diegu, gure lehengai diren janari horiek hornitu ahal ditzaten. Eta gure sukaldarien teknikaren eta maisutasunaren bidez, zentzuen gozamen bihurtzen ditugu, gastronomia osasungarria, jasangarria eta goxo-goxoa eskaintzeko.



### EGIAZKO ZAPOREAK



647 79 83 41

Torreauzo 10

20560 Oñati (Gipuzkoa)

[www.fedepacha.com](http://www.fedepacha.com)

## » UDAL AURREKONTUAK - 2022

**18,8 milioiko aurrekontua onartu du Udalak****EH Bilduren aldeko eta EAJren aurkako botoz onartu dira 2022ko udal aurrekontuak**


18.830.772 euroko aurrekontua izango du Oñatiko udalak 2022an, 2021ekoa baino %13,42 handiagoa. Abenduaren 16ko osoko bilkuran onartu ziren udal aurrekontuak, EH Bilduren aldeko eta EAJren aurkako botoz.

Sarrerak eta gastuak parean dituen aurrekontua da, eta azpimarratzekoa da 2,1 milioiko aurrezki arrunt positiboa aurreikusten dela.

Diru sarrerei dagokienez, Udalen Finantzaketarako Foru Funtsaren igoera (+%14,9), eta udal enpresen dibidendoetan espero den igoera (Ur Jauziak enpresatik 293m€, eta Oñargitik 819m€) dira daturik aipagarrienak.

Inbertsioetara 2,6 milioi bideratuko dira, 2021ko kopurua ia bikoiztuz. Aurrekontua orekatzeko 531m€-ko mailegu berria aurreikusi da, baina 2021eko likidazioaren arabera, litekeena da beharrik ez izatea. Udalaren zor bizia 9,5 milioikoa da egun.

## ► AURREKONTUAK DEPARTAMENTUKA



Lurralde Antolaketa departamentuaren barruan Hirigintza eta Zerbitzuen saila, eta Auzoak, Landa Garapena eta Ingurumena daude. Barne Antolaketan berriz, pertsonal gastuak, besteak beste.

## ► DIRU SARRERAK KAPITULUKA

<b>I. ZUZENEKO ZERGAK</b> (kontribuzioa, ibilgailuak, gainbalioa, jarduera ekonomikoak...)	4.329.863
<b>II. ZEHARKAKO ZERGAK</b> (obra baimenak...)	250.000
<b>III. TASAK ETA BESTE SARRERA BATZUK</b> (zaborra, kiroldegia, etxez etxeko laguntza...)	2.730.892
<b>IV. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK</b> (Foru funtsa, gizarte zerbitzuetako laguntzak...)	9.606.341
<b>V. ONDARE-SARRERAK</b> (Oñargi, Ur Jauziak)	1.195.337
<b>VII. KAPITAL TRANSFERENTZIAK</b> (Hirigintza kuotak (%10), diru laguntzak inbertsioetarako...)	159.410
<b>VIII. FINANTZA AKTIBOAK</b> (kapital itzulketak, interesak...)	28.000
<b>IX. FINANTZA PASIBOAK</b> (mailegua)	530.928
<b>GUZTIRA</b>	<b>18.830.771</b>

## ► GASTUAK KAPITULUKA

<b>I. PERTSONAL GASTUAK</b>	6.247.727
<b>II. ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK</b> (konponketak, argindarra, garbiketa, bulego materiala, etxez etxeko laguntza zerbitzua, lorezantza...)	6.298.209
<b>III. FINANTZA GASTUAK</b> (maileguen interesak)	23.857
<b>IV. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK</b> (Aloña Mendi, musika eskola, kultur taldeak, hirugarren mundua...)	3.400.070
<b>V. KREDITU GLOBALA</b>	0
<b>VI. INBERTSIO ERREALAK</b>	2.634.215
<b>VII. KAPITAL TRANSFERENTZIAK</b> (Mankomunitateari diru laguntzak inbertsioetarako...)	190.851
<b>VIII. FINANTZA AKTIBOAK</b>	28.000
<b>IX. FINANTZA PASIBOAK</b> ( amortizazioa)	7.840
<b>GUZTIRA</b>	<b>18.830.771</b>



» Gobernu taldearen (EH Bildu) ikuspuntua

## "Onartu dugun aurrekontua erraminta garrantzitsua izango da Oñati dabilen herria izaten jarraitzeko"



2022rako onartutako aurrekontuekin pozik azaldu zen udal gobernu taldea. "Aurrekontuaren igoerak ondasun eta zerbitzuen erosketak handitzeko aukera ekarriko du eta, beraz, orain arteko zerbitzuak mantendu eta hobetzeko aukera izango dugu" adierazi zuen Izaro Elorza alkateak.

Sarrera eta gastuak parean izanik, aurrekontuetan 2,1 milioi euroko aurrezki arrunt positiboa aurreikusten dela azpimarratu zuen alkateak, "udalaren egonkortasun ekonomikoa bermatzen delarik". Inbertsioetara 2,6 milioitik gora (iazkoaren halako bi) bideratuko direla ere azpimarratu zuen udalburuak.

Jarraian, EH Bilduko zinegotziek arloz arlo azaldu zituzten 2022ko egitasmo nagusiak (ikus ondoko taulan).

Oposizio taldeak emandako erantzunarekin ere pozik zeudela adierazi zuen Xabier Igartuak. "Gobernu taldeak aurkeztutako proposamenduetatik puntu bakar bat bera ere kentzeko eskaerarik egin ez izana, gauzak ondo landu (hurrengo orrira)

» **HIRIGINTZA**  
*San Lorentzo eta Olakuako irisgarritasuna hobetzeko fase berriak egingo dira (600m€)*

» **KIROLAK**  
*Azkoagaineko belar artifiziala aldatuko da (360m€) eta Urrutxun atletismo pista bat egokitzeko proiektua landuko da (15m€)*

### ► 2022ko EGITASMO NAGUSIAK

#### BERDINTASUNA

- Berdintasunplaneko ekintza planaren garapena (17m€).
- Azterlanak eta lan teknikoak (31m€):
- Emakumeen Etxearen inguruko parte-hartze prozesua.
- Zaintza beharren eta baliabideen inguruko diagnostikoa.
- LGTBIQ+ diagnostikoa.

#### KULTURA

- Emakume sortzaileen lana bistaratzeko ahalegin berezia egingo da (10m€).
- Santa Ana antzokia egokitzeko lanak (85m€)
- Herriko kultur taldeen sormena eta programak garatzeko laguntzak (86m€)
- Antzerki eta musika programazioak (82m€)
- Aita Madinaren 50. urteurrena (12m€).

#### EUSKARA

- Herriguneko zenbait etxe jatorrizko izenez identifikatzeko ekimena jarriko da abian.
- Euskaltegiko bekak (6,5m€)
- Ostalaritza eta zaintza euskalduntzeko (6m€)
- *Ingo xonau!* ekimena (5m€)

#### PARTAIDETZA ETA GARAPEN KOMUNITARIOA

- Partaidetzazko Aurrekontuen prozesu berria abian jarriko da (22m€).
- Komunitatea indartu eta herritarrak ardatz izango dituen gobernantza ereduranzko bidea egiten jarraitzeko prozesuak (30m€).
- Eltzia eraikinean wifi-a jarriko da (24m€) eta Eltzia egitasmoa sustatzen jarraitzeko (40m€)
- Garapen bidean dauden herrialdeekiko lankidetzak proiektuak sustatzeko (130m€).
- Udal gardentasunean sakontzeko (15m€).

#### KIROLAK

- Azkoagainen belar artifiziala aldatu (360m€)
- Urrutxun atletismo pista baten proiektua aztertu (15m€)

#### SOZIOEKONOMIA

- Merkataritza biziberritzeko planeko ekintzak garatu (25m€).
- Bonoen plataforma digitala mantendu (30m€).
- Turismoko plan estrategikoa garatu (15m€).

- Ekintzailetasuna sustatu (Olaburu eta Olalan).

#### HEZKUNTZA

- Herriko ikastetxeek metodologia berrizailetan oinarritutako metodologiak garatzeko laguntzak (87m€).
- Helduei zuzendutako Oñatiko 'Esperientzia Gela' abian jarriko da.
- Aisialdiko Begirale ikastaroa eskainiko da.
- Etorkinei zuzendutako *Auzoko* eta *Txipistin* zerbitzuak eskaintzen jarraituko da.

#### HAURRAK ETA GAZTERIA

- Haur, gaztetxo eta gazteei zuzendutako zerbitzuetan integrazioa sustatzeko programak garatu (30m€).
- Haur parkeen diagnostikoa (12m€).

#### HIRIGINTZA ETA ZERBITZUAK

- San Lorentzo eta Olakuako auzuneetako irisgarritasun fase berriak (600m€).
- Hiri Antolamendurako Plan Orokorren garapena (106m€).
- Argiteria publikoa berritu (120m€)
- Haurren jolas guneak berritu (30m€)
- Mugikortasuna eta oinezkoen segurtasuna areagotzeko ekintzak (40m€).

#### AUZOAK, LANDA GARAPENA ETA INGURUMENA

- Auzoetako inbertsioak (164m€) %9 igoko dira. Ur eta saneamendu proiektuak bideratzeko partida berria egongo da (14m€)
- Urrutxuko zaborteja zigilatze proiektuaren 2. faseko lan proiektua idatzi eta goiko eremuaren erosketak burutuko da.
- Udal lursail patrimonialetan inbertsioak; erosketak, bertako ostozabalen sustapena...

#### ONGIZATEA

- Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren diru saila handitu da (840m€).
- Gizarte larrialdietarako laguntzak (200m€).
- Eskuhartze psiko-sozialerako diru saila handitu da (220m€).
- Eguneko Zentro arina izeneko zerbitzu berria sortuko da (20m€).
- Adikzioen prebentziorako plana martxan jarriko da.

» **PARTAIDETZA**

*Aurrekontu parte hartzaileren prozesu berria jarriko da abian*

» **BERDINTASUNA**

*Emakumeen Etxearen inguruko parte-hartzeko prozesua egingo da*

» **LANDA EREMUA**

*Auzoetako inbertsioak egiteko diru saila %9 igoko da (164m€)*

ditugunaren seinale da".

EAJk egindako proposamenetatik hiru aurrekontuan txertatu dituztela ere azaldu zuen Igartuak: "futbol zelai berriaren kokalekuari buruzko azterlana egitea (15m€); auzoetako argiteriaren diagnostikoa egitea (20m€); eta San Lorentzo-Olakuako irisgarritasuna hobetzeko diru sailaren baitan, errekarera erortzeko arriskuaren inguruko azterlana egitea".

EAJren proposamenen dauden beste 8 puntu ere aurrekontuan jasota dauden partidekin aurrera eramaten saiatuko direla adierazi zuen Igartuak. "Izan ere, proposamen batzuk egin dizkigute, baina nondik finantzatzeko asmoa duten argitu barik, eta proposamen serio baten gutxienezkoa izan beharko luke, nola finantzatzeko den esatea".

Bestalde, EAJk egindako proposamen batzuk "gehiago landuta" izatea eskertuko luketela ere gaineratu zuen Igartuak, eta komunikabideetan publiko egin aurretik kontrastatzea nahikoa litzatekeela; "adibidez, adikzioen prebentzio ekintzetarako jasota dagoen partida proposamen berri moduan agertu ez dadin, edo aurrekontu parte-hartzaileren prozesua abian jartzeko 250m€ beharrezkoak ez direla konturatzeko". ■

» **EAJren ikuspuntua**

## "Ez da akordiorako borondate politikorik egon EH Bilduren aldetik"



EAJ-PNVren udal taldeak ezezko botoa eman zion EH Bilduren gobernu taldeak aurkeztutako aurrekontu proposamenari. "Guk aurkeztutako 19 proposamen edo emendakinetatik bakarra onartu du gobernu taldeak —futbol zelaiaren kokapenaren inguruko azterlana egitea— eta, egia esan, ez dugu akordiorako borondate ikusi" arrazoitu zuen Ainhoa Galdos bozeramaileak. "2021eko likidazioa egiten denean gerakina erabiltzeko aukera ere eskatu dugu, gure proposamenetako batzuk gauzatu ahal izateko, baina ezezkoa jaso dugu".

"Herritarren beharrei ahalik eta egokien erantzutea da gure helburua, horixe baita ofatiarrekin dugun konpromisoa, eta asmo horrekin aurkeztu ditugu gure proposamenak, aurrekontuak osatu eta hobetzeko asmoz" gaineratu zuen Galdosek.

EAJk aurkeztutako proposamenek milioi bat euro pasatzeko inbertsioa eskatzen zuten. "Ez dira proiektu gauza ezinak, baina bai estrategikoak, eta gure ustez lehentasunezkoak direnak, hala nola: Urrutxuko zabortegia zigitatzeko 2. faseko lanekitea, landa auzoetako inbertsioak egiteko diru atala handitzea, edo Zubillagako trenbideko zubia zabaltzea (nekazari gazteek jarri dituzten ustiategietara arazo barik iritsi ahal izateko)..."

"Horietako batzuk aurrekontuetan jasota dauden partidetatik gauzatzen saiatuko dela adierazi du EH Bilduk, baina zehaztasun barik, eta guretzat ez da nahikoa" gaineratu zuen Galdosek.

### ► EAJren PROPOSAMENAK

- **Olakua-Olapotoko** irisgarritasuna hobetzeko lanak egin, Olapoto inguruari garrantzia emanez, eta auzo osoan errekarera erortzeko arriskua prebenitzeko plana eginez (400.000€).
- **Arantzazuko komunak** konpondu (20.000€).
- **Landa auzoetako argiteria** hobetu, lehentasuna emanez Murgixa eta Berezaio auzoei (20.000€).
- **Urrutxuko zabortegia** zigitatu eta deskontaminatzeko 2. faseko lanak hasi.
- **Herriko ikastetxeetako** liburutegiak hornitzeko diru-lerroa (10.000€).
- **Kultur etxeko gelak** asteburuetan ikasleentzat zabaltzea azterketa garaian, eta liburutegia Gabonetan eta uda sasoiaren ere irekitzea, horretarako baliabideak ipiniz (30.000€).
- **Azkoagain.** Futbol zelaiaren gaiari behin betiko irtenbidea emateko, kokaleku ezberdinen inguruko azterketa egitea (15.000€).
- **'Euskadi Lagunkoia'**. Zahartze aktibo eta autonomoa sustatzeko, Eusko Jaurlaritzak eta Matia fundazioak antolatzen duten 'Euskadi Lagunkoia' programara atxikitzea.
- **Eguneko Zentro Arina** zerbitzua martxan jartzeko kokalekua finkatu eta egokitzea (40.000€).
- **Adikzioak prebentzioa.** Adikzioak prebenitzeko diagnostikotik eratorritako ekintzak gauzatzea (20.000€).
- **Bizikidetzak sustatu.** Memoria, elkarbizitza eta giza eskubideak sustatzeko dituen herritar talde edo foroak sortzea (15.000€).
- **KM 0.** Baserriko produktuen salmenta digitala sustatzeko (promozioa, salmenta eta banaketa) plataforma sortzea (50.000€).
- **Merkataritzaren digitalizazioa.** Salmenta kanal digitalen erabilpena bultzatu, *bonoak.eus* eta aukera alternatiboak baliatuz, eta formazioa eskainiz (50.000€).
- **Auzoak.** Inbertsioak egiteko (bideen konponketak...) diru partida handitzea (164.000€).
- **Torrauzo-Zañartu.** Torrauzoko bidegorriari irtenbidea emateko jatorrizko proiektua (zubi berria) berreskuratzea (15.000€).
- **Zubillagan zubia zabaldu.** Trenbideko zubia zabaltzea, (nekazari gazteen ustiategietara iristeko arazoak daude) bere egunean idatzitako proiektua exekutatzeko (62.000€).
- **Lanpostuak egonkortu.** Udal langileen artean dagoen behin-behinekotasuna murriztu eta enplegua egonkortzeko neurriak hartzea.
- **Aurrekontu parte-harzaileak.** 2022-2023 urteetarako udal aurrekontu parte-hartzaileren prozesua abian jartzea herritarren parte-hartzea bermatzeko.
- **Elkarbizitza.** Bizikidetzak Ordenantza (espazio publikoen erabilera, zaratak, oinezko eta ibilgailuen arteko elkarbizitza...) idaztea parte-hartze prozesu bat eginda. ■



# Etorri, ikus! ikusi!

Urtarrilak

15

Ateak zabalik

Hitzordua aukeratzeko:



Urgain eskuorria:



Bideoak:



Matrikulazioa Urtarrilak 17tik 28ra

## Auzo-bideak konpontzeko hainbat lan egin ditu Udalak

Auzo-alkateen mahaian onartutako planaren arabera, landa-auzoetako hainbat bide konpontzeko lanak egin ditu Udalak.

Ondoko argazkietan ikusten den moduan, Olabarrietan, Auntzola baserrirako bidean, euri-urak errekarra bideratzeko hodia sartu da, eta Uribarrin, Erostegetxikia baserrirako bidean ere konponketa lanak egin dira.

Horiez gain, Larraña auzoko Antzuelasbeiti, Antzuelasetxebarri eta Antzuelasgoiti baserrietarako bideetan ere konponketa lanak egin dira zati ezberdinetan.

2021ean egitekoak ziren lanen artean, Murgia auzoko Biainurruti eta Biain baserrien artean euri urak bideratzea eta Aranerreka baserri parean bidea zabaltzea eta euri urak batzea falta zen, aldizkaria ixteko egunean.

Horiez gain, asfaltatze lanak ere egitekoak ziren Torreauzoko Munazategi eta Azkonitzaga artean, Olabarrietako Irubideta eta Lizarretxe artean, eta Murgia auzoan egindako konponketak bukatzeko. Guztira, 123 mila eurotik gorako kostua izan dute lanek.



## Esku-hartze sozioedukatiboa eta psikosoziala egiteko zerbitzua kontratatzeko deialdia egin du Udalak

Babesgabetasun egoeran dauden adingabe eta familiei, eta bazterkeria arriskuan dauden helduei zuzenduta, esku-hartze sozioedukatibo eta psikosoziala eskaintzen du Udalak, baina zerbitzu hori emateko egun duen kontratua 2022ko apirilaren 2an bukatuko da eta, beraz, kontratu berria egiteko espedientea onartu eta esleipen prozesua abiaraztea erabaki du Udalak. Bi urterako iraupena izango du kontratuak, baina lau urtera arte luzatu ahal izango da. Lizitazioaren oinarritzko prezioa 237.000 €tan finkatu da. Txosten teknikoa (49pt) ere hartuko da kontuan.

## Faunarentzako ihesbidea Lamiategin



2018an egin zuen Udalak, herritarren parte-hartze prozesu baten ondoren, Arantzazu eta Araotzeko paisaia babesteko ekintza plana, 5 helburu eta 37 ekintza jasotzen dituena.

Laugarren helburuaren baitan, 24. ekintzak honela dio: 'Kanal eta deposituetan faunaren heriotza eragozteko neurriak hartzea'. Eta kontuan hartuz Lamiategiko kanalean azeriak, basurdeak eta orkatzak azaldu izan direla, ubidearen albo bat zabaltu eta eskailera-arrapala bat egokitu da bertan, animaliek ihes-leku bat izan dezaten. Ugarte eraikuntzak egin ditu lanak 17.888€ko (BEZ barne) aurrekontuarekin.

### ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21  
Kale Barria, 11  
Lizaur A., 7  
OÑATI  
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO  
GUZTIETAKO  
ALTZARIAK

LANPARAK,  
TAPIZAK,  
KORTINAK



### MODA BEREZIA

Kale Barria, 12  
Tel. Faxes: 943 71 62 40

## San Martingo jolas parkea berritzeko lanak urtarrilean egingo dira



Jolas parkeko elementu guztiak berrituko dira. Zorua mantendu egingo da, egoera onean dago eta.

San Martin auzoko jolas parkeko zenbait elementu egoera txarrean daudela ikusita, bertako bizilagunen eskaerari erantzunez jolas guneko elementu guztiak berritzea erabaki du Udalak.

Ondoko irudiak erakusten duen moduan, lau dorredun egitura ipiniko da, altuera desberdineko bi txirrista, sokadun zubia, eskaladako igoera eta suhiltzaileen barra bertikala duena, besteak beste. Gainera, kabi formako zabua, eserleku formako bi kulunkari, horietako bat haur txikientzat, eta eserleku nahiz bolantedun jolas birakaria ipiniko dira.

Udalak Zizurkilgo Garra S.L.-ri esleitu dio jolas-elementuen hornidura eta instalazio lanak 14.932 eurotan (BEZ kanpo), eta asmoa da urtarrilaren erdialdera egitea da lanak.

## Familia ugarietarako hobari taula zabaldu egingo du Udalak kiroldagiko bazkide kuotan

Hirukide-k, Euskadiko Kide Ugariako Familien Elkarteak, egindako eskaria aztertu ondoren, familia ugarietarako hobari taula zabaltzea erabaki du udal gobernu taldeak Zubikoa kiroldagiko bazkide kuotan. Ondorioz, orain arteko hobari taula mantendu eta 65.000 euroko urteko errenta azpitik duten familietan 3. seme-alabak eta hortik aurrerakoek, gazteenetik hasita, doan izango dute kiroldagiko abonua txartela. Hobari hori berori aplikatuko zaie, baita ere, guraso bakarreko eta 3 seme-alaba edo gehiagoko familiei, EAJren udal taldeak egindako eskaria aintzat hartuz.

### KIROL TXARTELEAN ALDAKETAK

2022ko kiroldagiko abonua berritzeko prozesua abian jarri du Udalak eta, horretarako, gutun bana igorri die bazkide guztiei, abonua berriren tarifak eta aplikagarriak izango diren hobarien inguruko informazioa emanez.

Gogoratu, hobariak aplikatzeko irizpidea aldatu duela Udalak; hau da, aurrerantzean familia unitate bakoitzaren errenta mailaren arabera aplikatuko da, eta ez pertsonen egoeraren (langilea, pentsioduna, langabetua, alarguna...) arabera. Erabaki horren helburua da behar handiena duten herritarrei laguntzea. Beraz, hobari baten onuradun izan daitezkeela uste duten herritarrek kiroldagian egin behar dute eskaera. Gainerakoei automatikoki aplikatuko zaie dagokien tasa, kontrakoa adierazi ezean.



## KIMU-URTXIN loradendarena politena, bai epaimahaiarentzat eta bai herritarrentzat ere

**Kimu-Urtxin** loradendak eraman ditu XIV. Erakusleihu Lehiaketako bi sari nagusiak, adituen epaimahaiarena (500€) eta herritarrena (500€). Bigarren saria (300€) **Andrea Azkoaga** Interioristak jaso du, eta hirugarrena (200€) **Oreka Reforma e Interiorismo** dendak. Herritarren sariari dagokionez, 1.060 lagunek parte hartu dute bozketan eta 301 izan dira Kimu-Urtxinentzat.

Gezalaga  
Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com

**ANE MERTZERIA**

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

## Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09  
Faxe: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI



## Goribar auzoan biribilgunea egiteko proiektua bere horretan eta behin betiko izaeraz onartu du Foru Aldundiak

Irailean jendaurrean jarri zuen proiektu bera onartu du Foru Aldundiak behin betiko izaeraz. Azaroaren 30eko diputatuen kontseiluan onartu zuen eta abenduaren 21eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu. Proiektuaren inguruan aurkeztutako bi alegazioak eta hauei emandako erantzunak ere argitaratu dira, proiektua gauzatu ahal izateko desjabetu beharreko lursailen zerrendarekin batera. Gainera, Eusko Jaurlaritzari obra presazkotzat jotzeko eskatzea ere onartu du diputazioak. Gogoratu, GI-2630 errepideko 18,250 KP-an aurreikusten dela biribilgunea eraikitzea, Urbieta baseritik gertu, irudian ikusten den moduan, eta bertako bizilagunek proiektu horren aurkako 3.300 sinadura bildu dituztela herritarren artean.

## Urtarrilaren 28ra arte luzatu da A-636 Beasain-Bergara autobideko bidesariari buruzko informazio aldia

Gogoratu, hil honetan bertan kanon bat kobratzen hasiko dela Foru Aldundia Beasain eta Bergara lotzen dituen A-636 autobia erabiltzen duten motordun ibilgailu guztiei, motozikletei izan ezik. Autobiaren erabilera kobratzeko, *free-flow* izeneko sistema adimendua erabiliko da, arkuen bidez. Horregatik, erabiltzaileek tele-ordainketarako gailu bat (Abiatu, Via-T) eskuratu beharko dute, edo, bestela, ibilgailuaren matrikula banku txartel batekin lotu. Aldundiak *Abiatu* gailua jartzea gomendatzen du, deskontu progresiboa baliatzeko aukera ematen duelako. Aukera bat edo bestea telematikoki egin daiteke [www.bidegi.eus](http://www.bidegi.eus) webgunean.



## Garay enpresan greba mugagabea iragarri dute urtarrilaren 10etik aurrera

Hijos de Juan de Garay-ko enpresa batzordeak jakinarazi duenez, abenduaren 9ko asanbladan erabaki zuten, gehiengo zabal baten oniritziarekin, urtarrilaren 10etik aurrera greba mugagabea egitea. Hilabete luzeetako negoziazioek porrot egin ostean hartutako erabakia dela adierazi du batzordeak. Laster bi urte beteko dira hitzarmenik gabe, eta Gipuzkoako Metaleko hitzarmenari lotutako igoerak ez bermatzea, eta hainbat neurri sozialetan adostasunik ez lortzea daude desadostasunaren muinean, langileen ordezkariak adierazi dutenez.

## Osasun zerbitzuak indartzea eskatu dio Udalak Jaurlaritzari

Oñatiko Udalak gutuna igorri dio Jaurlaritzako Osasun sailburuari, dekretu bidez onartu dituen neurri murriztaileen betetzea berriz ere udalen esku utzi izana kritikatu, inolako baliabiderik eskaini gabe. Neurri murriztaileak aplikatzera mugatu ordez, Osakidetzako lehen arreta indartzea, aurreko kontsultak berreskuratzea, herritarrei test azkarrak astean behin dohainik egiteko aukera eskaintzea eta laborategiko zerbitzuak indartzea eskatu dio, besteak beste, Udalak Jaurlaritzari.

**JUANJE MARGOAK**  
627 818 247

**amaia igartua**  
arkitektura

IGOGAILUA ETA FATXADAN ISOLATZAILEA JARRI NAHI?  
**RENOVE DIRU LAGUNTZAK MARTXAN**  
tel: 677 31 20 57 email: [amaliigartua@gmail.com](mailto:amaliigartua@gmail.com)

Elkarrekin ikasi  
eta ekin

Eraldatzailea

Anitza

Gizatiarra  
Kontzientea

Ebidentzia zientifikotan  
oinarrituriko hezkuntza

Irekiak

Bidelagunak

Sortzailea



*Oñati guztiak*

elkarhezi.eus



Ate Irekiak Urtarrilak 15, larunbata 11:00etan.  
Bisita pertsonalizatuak adosteko:



idazkaritza@elkarhezi.eus



943718272



688621295



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

**Bidaurreta Dorrea z/g**  
**20560 OÑATI**  
**Tel.: 943 78 20 72**  
**kontzejupetik@onati.eus**



Oñatiko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

## KONTZEJUPETIK

### Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

### Zuzendaria:

Iñigo Arregi

### Publizitatea:

Aratz Losada

### Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

### Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

### Inprimategia:

Gertu

### Tirada:

5.500 ale

### Lege gordailua:

SS-357/91

### Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

### Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa  
20560 Oñati (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 78 20 72

## Eskerrak Oñatiko dendariei

**Itziar Agirre Vicente (Urgain Eskola eta Oñati BHLren izenean)**

**A** bendua heldu da eta urtero bezala, eskolek, gure matrikulazio kanpaina martxan jarriko dugu.

Oñatin, matrikulazio garaian ohikoa izan da hiru eskolek bakoitza bere aldetik kartelak sortzea eta herriko hainbat gunean jartzea, horien artean herriko dendetan.

Jakin badakigu, garai honetan, dendariak esfortzu berezia egiten dutela beraien erakuslehoak bezeroentzat apaintzeko erakargarriak izan daitezten. Ulertzen dugu ikastetxeak gure kartelekin hurbiltzen garenean beraientzat egoera deserosoa sortzen dela eta askotan dendariak konpromisoan jartzen ditugula gure kartelak erakuslehoetan jartzeko.

Azken urte hauetan iruditzen zaigu egoera okerrera egin duela ikastetxeon kartelak geroz eta handiagoak direlako.

Hori horrela, Urgainen erabaki dugu hemen-dik aurrera matrikulazio kanpainako kartelak soilik herriko adierazpen libreko gunetan jarriko ditugula eta ez ditugula dendariak konpromisoan jarriko.

Eskerrak eman nahi dizkizuegu, dendari guztiei, orain arte izan duzuen jarreragatik eta gurekiko erakutsi duzuen prestutasunagatik gure matrikulazio kanpainetan laguntzeko.

## U8 Bilbora!

**Jon Tome Korkostegi (Oñatiko Sortuko kidea)**

**H**erri mobilizazioak, borroka instituzionalarekin batera, lorpen esanguratsuak ekarri ditu presoaren gaiari dagokionez. Gaur egungo dispersioaren mapa, orain dela 2 urtekoarekin alderatzea besterik ez dago. Bestalde, horrenbeste sufrimendu eragin duen lehen gradua atzean uztea lortu da.

Hala ere, oraindik asko falta da egiteko euskal presoek aplikatzen zaien salbuespen politikarekin behingoz amaitzeko. Dozenaka preso etxean lirakeke jada hau aplikatu ezean (adineko presoak, gaixotasun larriak dituztenak, Frantzia betetako kondena kontuan hartu

ez zaizkienak, kondena %4 beteta dituztenak...). Salbuespen politika anker honen beste sintoma bat ere bada gradu progresioan dagoen blokeoa eta euskal presoek ia ezinezko izatea hirugarren gradua lortzea.

Honetaz gain, gerturatze asko eman diren arren, EPPKko presoek %40 soilik aurkitzen da Euskal Herriko espetxeetan eta gaur egungo testuinguruan ez dago aitzakiarik kopuru hori %100 ez izateko.

Bide honetan, aurrerapausoak ematen jarraitu beharra dago, izan ere, 10 urte igaro dira ETAK bere jarduera armatuaren amaiera iragarri zuenetik. Armak uzteak ez zuen gatazkaren amaiera esan nahi, arazo politiko bat konponbide politiko batekin soilik konpon daitekeelako, baina bakea eta itxaropenari ateak zabaltzeko balio izan zuen ordea.

Konponbide demokratiko bat urrun ikusten da bere miseriak ezkutatzeko espetxeak erabiltzen dituen sistema honetan. Zer esan bestela hainbat eta hainbat euskal herritar ziega ilun batean sartu eta giltza botatzen duen espetxe politika honi buruz? Berandu baino lehen presoek auziari konponbide duin bat eman behar zaio, haiengatik, senide eta lagunengatik, elkarbizitzarengatik, eta, nola ez, Euskal Errepublika eraikitzeke haiek ere beharrezkoak ditugulako.

Aipamen berezi bat gure herrikide diren Joseba, Gotzon eta Albertoren egoerei. Adineko preso den Joseba, 30 urte kartzelan. Gotzon, bizi osorako espetxe zigorra izan daitekeenari aurre egiten. Alberto, 24 urteko kondena bete arren, oraindik bere sorterrira ezin itzuli. Noiz arte?

Gutxi batzuk, beraien interesak direla eta, tamalez, eroso egongo dira egoera honekin. Gehiengoa, aldiz, aspaldi batu zen giza eskubide, elkarbizitza eta bakearen aldeko bidera. Horren erakusle izango da, beste urte batez, Bilboko kaleak txiki uztea. Etxerako bidean, U8 Bilbora!

**Mekanizazio zerbitzu integralak**

**Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es**



## Sozialismoa ala basakeria

Aitor Tatiegi Loidi (Deba Bailarako Kontseilu Sozialistako kidea)

Urtebete baino gehiago pasa da Oñatin Mugimendu Sozialista egituratu zenetik. 2020ko abenduan aurkeztu zen Gazte Koordinadora Sozialista, euskararen eta artearen inguruko jardunaldi batzuen bitartez. Geroztik, etengabeko lanean aritu da taldea, besteak beste, martxoaren 3ko Gasteizko sarraskiari buruzko egitarau bat antolatu eta kontrol sozialari buruzko kanpaina bat landu da. Ez da ordea GKS, Oñatin mugimendu sozialista ordezkaten duen antolakunde bakarra. Ikasle abertzaleak antolakundeak, bi urtez jarraian herri eskolak antolatu ditu abenduaren 6an; eta ezin ahaztu, azaroaren 25aren bueltan emandako kanpaina, zeina plazan egindako kontzentrazio batekin amaitu zen. Kontseilu Sozialistak, berriz, aberri egunean ekitaldia eta kontzentrazioa burutu zituen gurean, baita maiatzaren batera arte luzatu zen dinamikako hitzaldi bat ere. Errakik, azkenik, Errotxapeako gaztetxearen aldeko elkartasun jaialdi bat burutu zuen azaroan. Lan militante ikaragarria dago aipaturiko hauen eta beste zenbaiten atzean, guztiz goraipagarria.

Ezin esan ordea, egoera ona denik. Basakeria kapitalistak, aurpegiak gordinena erakusten du krisi garaian. Eta nola ez, Oñati ere ez dago bertatik salbu. Jaietan, gutxienez bi eraso sexistak egin ziren. Herritar bat atxilotu zuten gaztetxe baten defentsan. Lan munduan gatazkak ugaritu dira (Stadlerren, Garayn, Su hiltzaileen parkean...). Herriko iheslari bat gose greban egon da Venezuelan errefuxiatu izaera onar ziezaioten.

Hainbat dira basakeriaren adibideak eta guztiak salatuko ditu GKS nazionalki urtarrilaren 29rako Bilbon eta Iruñean deituriko manifestazioetan.

Sistema hau bere osotasunean gainditzeko mekanismoak garatu ezean jai daukagu. Ezinbestekoa da beraz, gaurdanik zapalkuntzarik gabeko mundu baten eraikuntzari ekitea. Era-soak eraso, Mugimendu Sozialistak konpromiso eta determinazio osoz darrai. Sozialismoa ala basakeria dikotomian, hautatu dugu gure lekua. Zuk ere hauta ezazu, batu borrokara!

## OHARRAK, DEIALDIAK ETA AZKEN ORDUKOAK

### • U8an Bilbora joateko deia egin du SAREK

'Elkarbizitarako. Bakerako. Etxerako BIDEAN' lelopean urtarrilaren 8an Bilbon (17:00) egingo den manifestazioan parte hartzeko deia luzatu du Sare plataformak. Salbuespen legeriak presoengan eragiten duen eskubide urraketak desagertzea eta espetxe politika aldatzea exijituko da, bizikidetzan aurrera egin ahal izateko. Oñatitik autobusak antolatuko dira Bilbora joateko.

### • 'Erreusak' egitasmoko elkarrizketak ikusgai

'Erreusak' egitasmotan grabatutako elkarrizketa sorta dagoeneko ikusgai dago Youtubeko Erreusak Etnografia kanalean. Gozatu eta mila esker parte hartu duzuen guztioi, *Gure Bazterrak* elkartearen izenean.

### • Etxegarai-Oses, Gipuzkoako txapeldun

Madalen Etxegarai eta Uxue Oses Aloña Mendiko pilotariak Gipuzkoako eskuz binakako txapelketa irabazi dute nagusien mailan. Finalean Bergarako Maddi Barrocal eta Arrate Bergara hartu zituzten mendean, 22-9.



### • Aimar Madina, Euskadiko txapeldun ziklo-krosean

Abenduaren 26an Araian jokatu zen Euskadiko gazte mailako ziklo-kros txapelketa irabazi zuen Aimar Madinak, Arrikruz-Aloña Mendi taldeko txirrindulariak. Bi aste lehenago, Tolosako ziklo-krosean ere nagusitu zen Madina, eta, gogoratu, errepideko Euskadiko txapelketa ere irabazi zuela uztailen.



### • Usurbe-Murumendi, urteko lehen mendi irteera

Aloña Mendiko mendi sailak urte berrirako antolatu duen lehen mendi irteera urtarrilaren 23an izango da, eta Usurbe eta Murumendi gainak kateatuko dituzte.

  
**TABERNA • JATETXEA**  
Bidebarrieta 6  
Tel.: 943 71 62 96  
20560 OÑATI

**FAGOR**  
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA





OÑATIKO UDALEKO

**ARAZERIXAN**

HAUR ETA GAZTERIA SAILA

*Gure ekintzen berri emango duen atala...*

## MILA ESKER URTE BEREZI HONETAN ERE GUREKIN EGOTEAGATIK!!

Aurten ere, urte zaila izan arren, mila bizipen elkarbanatu ditugu Oñatiko haur eta gaztetxoekin. Espero dezagun datorren urte berria hobea izatea, eta elkarrekin beste une alai eta gogoangarri asko bizi ahal izatea!!



**AGENDA:** 2022.01.3 LUDOTEKAN, argiarekin jolasean. 2022.01.4 TOPALEKUAN, globoen jolasa. KUBOAN, LH5 ekintza berezia. LUDOTEKAN, look aldaketa. | 2022.01.5 TOPALEKUAN, futbol txapelketa Larrañan. | **Data zehazteko** KUBOAN, kreatibitatea lantzen tailerra. | 2022.01.15 KONTZERTUA GAZTELEKUAN 22:00etan, The Guilty Brigade (Iruñea) + Libertad Condicional (Arrasate). Sarrera 6 €



# atxi murka

#9. AIERUA

nola joaten zaren  
bazatozenezan  
nola egiten duzun irri  
geratzen zarenean  
nolakoa zaren

banoanean  
nola etortzen zaren  
irri egiten dudanean  
nola geratzen zaren  
banaizenean

nola joaten zaren  
banatorrenean  
nola egiten duzun irri  
geratzen naizenean  
nolakoa zaren

nola joaten zaren  
nola egiten duzun irri  
nolakoa zaren  
nola geratzen zaren

banatorrenean  
banoanean.

**May Ayin.**

**4 ONATIA** EMAKUMEZKOEN ARRASATE RUGBY TALDEKO KIDE DIRA AURTEN

# Errugbiari katigatuta

Urteetako etenaren ostean, iaz itzuli zen emakumezkoen errugbia Arrasatera. Ordiziako taldearekin batuta, bailarako herrietako jokalariekin osatzen da aurtengo plantilla. Tartean daude Oneka Anduaga, Olatz Anduaga, Leire Urkia eta Anotz Arnaiz oñatiarrak. Lau txantxikuarrak elkartu ditugu erreportaje hau egin, eta herrian ez daukagun kirol berezi hau gertuagotik ezagutzeko asmoz. «Katigatu» egiten duen kirola dela diote.

Aratz Losada    LARTAUN ITURBE



Anotz Arnaiz oñatiarra ezkerrean, aurtengo denboraldiko Gaztediren aurkako neurketan.

Urte dexente ziren, Arrasaten, emakumezko errugbia falta zela. Zorionez baina, bertako kide batzuen ekimenez, iaz itzuli zen taldea berdeguneetara. Bailarako jokari ezberdin ugari elkartu zituen proiektu berriak eta hasieratik dabilta Mojategi aldean, Leire Urkia, Anotz Arnaiz, Oneka Anduaga eta Olatz Anduaga txantxikuarrak. Hurrenez hurren, ordena horretan hasi ziren kirol honetan.

Leire Urkia izan zen lehena. «Oñatin karatea praktikatu izan dut. Eta amaren bitartez sortu zitzaidan errugbia probatzeko aukera. Klubeko kide bat ezagutzen zuen eta berak eman zidan aukera» adierazi digu. Anotz Arnaiz izen zen bigarrena. «Ni boxeoa nengibilen baina pandemiak

 **garmendia tejas**

Basozabal Industriadea 5 · N-1, km 417

20212 Olaberria (Gipuzkoa)

T. 943 161 032

[www.garmendiatejas.com](http://www.garmendiatejas.com)



Kirola egiten  
Pigui jar

Kalitate garrantzitsua

Diruzko erabilera

dena gelditu zuen. Ezin genuen nahi bezala entrenatu eta lagun baten bitartez iritsi nintzen Arrasatera. Hasieran nire adinekoekin hasi nintzen, eta aurten, senior mailako taldean sartzeko aukera izan dut». Oneka Anduagaren kasua berriz, ezberdina da. «Ikasketak tarteko, azken urteetan Bartzelonan bizi izan naiz. Eta horiek amaituta, iazko azaroan hasi nintzen kirol hau probatzen» dio. Taldean sartzen azkena, Olatz Anduaga izan da. Orain bete da urtebete, errugbia sartzeko erabakia hartu zuenetik. «Banekien besteak bazebiltzala eta hiru urtez, talde-kiroletik aldentuta egon ostean, gogoia neukan berriz ere lagun giroan sartzeko. Aurrez hainbat urte egin nituen eskubaloian eta azken urteotan, nire aldetik ibili naiz kirola egiten» gaineratu du.

#### HASIBERRIAK

Lau oñatiarrak bezala, taldeko kide gehienak, hasiberriak dira errugbian. «Orokorrean, beste kirol batzuetan ibili garen kideek osatzen dugu taldea». Zentzu horretan, oraindik, ikasten dabil-



ONEKA ANDUAGA  
24 URTE



OLATZ ANDUAGA  
24 URTE

«Amak Arrasate errugbi taldeko kide bat ezagutzen zuen, eta berak eman zidan kirol honetan sartzeko aukera. Aurrez, karatean ibilitakoa naiz»

«Oñatin boxeoa egiten nuen pandemiak dena gelditu zuen arte. Orduan sortu zitzaidan lagun baten bitartez errugbia ezagutzeko aukera, eta egia esan, oso gustora ari naiz»

«Bartzelonatik itzuli ostean, iazko azaroan hasi nintzen Arrasaten errugbian. Oraindik ikasten gabiltza baina egia esanda, oso gustora nabil taldean»

«Ni izan naiz taldera sartu den azkena. Hiru urte neramatzan eskubaloia utzi, eta nire aldetik kirola egiten. Talde-kirol batera itzultzeko gogoia nuelako hasi naiz»



LEIRE URKIA  
19 URTE



ANOTZ ARNAIZ  
16 URTE

tzala diote. «Iazko urtea oso baliagarria izan zen zentzu horretan. Ez genuen lehiatu, soilik entrenatu, eta kirol honen joko-arauak ikasten ibili ginen» diote.

Horrek, nolabaiteko segurtasuna eta bermea eman die aurten lehiatzera irtetzeko.

#### ORDIZIAREKIN BATUTA

Lehiara irtetzeko baina 23 jokalaria behar dira gutxienez, eta ez Arrasaten, ezta Ordizian ere, ez zuten baldintza hori betetzen. Hori horrela, bi taldeak elkartzea erabaki zuten. Eta urriaz geroztik, Euskal Ligan dihardute Arrasate-Ordizia bezala. «Lehiatzea beste erronka bat izaten ari da guretzat. Egia da iaz baino seguruago sentitzen garela, baina orokorrean, aurkariek, gu baino esperientzia gehiago daukate, eta emaitzetan igerrri egiten da».

Aurtengo sasoiko lan erdiak osatuta, ligako azken postuan dira jokaturiko bost partidak galduta. Gabonetako etenaldiaren ostean, urtarrilaren 9an ekingo diote txapelketari La Única talde iruñearrari bisita eginez. «Emaitzak ez dira onak, hori garbi dago. Baina haratago begiratzen duen proiektua da gurea. Talde-giro oso polita daukagu eta asko ari gara ikasten» diote.


Esperientzia moduan «oso aberasgarria» izaten ari dela gaineratu dute baina era berean, herri ezberdinetako taldea izanik, batera entrenatzeko, «zailtasunak» ere badituztela onartzen dute. Dena delakoarekin, ikasten eta gozatzen segi nahi dute.

**Oñabike**

oñabike.com

Otadi 25, Oñati · Tel.: 943 78 05 65

BIZIKLETAK · PATINETEAK · KIROL ARROPAK



## Musika, kantua, bertsoak eta dantza uztartzen dituen ikuskizuna

# AMALURRA

**Hots Abesbatzak, Onintza Enbeita** bertsolariak eta **Camden Dance Studio** taldeko dantzariak eskainiko dute ikuskizuna urtarrilaren 8an, Zubikoa pilotalekuan

Kultur ikuskizun eder batez gozatzeko aukera izango dugu urteari hasiera emateko. Hots Abesbatzak, Onintza Enbeita bertsolariak eta *Camden Dance Studio* taldeko dantzariak eta Amaia Zipitria piano joleak **Amalurra** eskainiko dute urtarrilaren 8a, Zubikoa pilotalekuan (19:30), Aitor Biain Bidarteren zuzendaritzapean.

Kantua, musika, bertsoak eta dantza uztartzen dituen diziplina anitzeko ikuskizuna da **Amalurra**. "Amalurra laguntza eske dago, itzaltzen baitago, eta kasurik egiten ez badiogu, itzali egingo da betiko". Horixe ikuskizunaren atzean dagoen mezua.

75 minutuko ekitaldian zehar naturako hainbat esparru jorratuko dira: elementuen kantak (ura, sua, airea eta lurra), animaliak, mendia, basoa, gaua... Hori guztiori euskal musika eta bertsoak konbinatuz, dantzariak ukitu berezia ematen dioten bitartean. Txokolateixan, [www.oñati.eus](http://www.oñati.eus) webgunean eta leihatila digitalean daude salgai sarrerak (10€).

## Musika bandaren kontzerturako gonbidapena beharko da



Urtarrilaren 6an eskainiko du musika bandak urteko lehen kontzertua, kiroldegiko pilotalekuan (13:00), eta osasun egoera dela eta, aforoa mugatua egongoenez, bertara sartzeko gonbidapena beharko da eta Covid ziurtagiria ere erakutsi beharko da. Txokolateixan eskura daitezke gonbidapenak (dohainik). Klasiko handiei eskainitako kontzertu berezia eskainiko du musika bandak, eta *Carmen* operako martxa (G. Bizet), *Jostailuen sinfonia* (J. Haydn), *Carmina Burana* (C. Orff), *Beethoven-en 5. sinfonia*, eta *Pucciniren opera* zati batzuk joko ditu Aitor Biainen zuzendaritzapean.

## 'Ikusezinak. Oñatiko emakumeen lanak' liburua plazaratu du Artixak

Gure aurreko belaunaldietako emakumeek egindako lana gogoratu eta goraiatzeko da Artixa taldeak argitaratu duen liburuaren helburua; gabezia handiko garaietan euren familiak aurrera ateratzeko egin zuten isileko lanaren eta sakrifizioaren aitortza xumea. Argazki liburua da eta atalka bildu dituzte lan ezberdinetan diharduten emakumeen ehundik gora argazki: baserriko lanetan, etxeko lanetan, eskolan, joskinak, neskameak, tabernariak, merkatariek, lantegietakoak... Txokolateixan eta Turismo Bulegoan dago salgai liburua 15 eurotan.



## 'Arantzazuko Benta' liburua idatzi du Jose Ramon Arrazolak

Arantzazuko Goiko Benta ostatuaren historiari buruzko liburua idatzi du Jose Ramon Arrazolak. XVI. mende hasiaren ostaturako da ostautua, eta garai hartan 12 logela, 100 lagunentzako jatetxea eta 60 zaldirentzako lekua zituen. 1614ra arte Oñatiko udalaren jabetzakoa izan zen eta gero esku pribatuetara pasa zen. 1912an erosi zuen Facundo Maiztegik, Migel Maiztegiren aitajaunak 20.000 pezetatan. Goiko Bentan eskura daiteke liburua.



# “PREZIORIK ONENAK ETA GERTUKO ARRETA”

TELEFONO FINKOA

**+ FIBRA**  
100Mb

**+ 25Gb**  
MUGIKORRA  
DEI MUGAGABEEKIN

**+ 3Gb**  
2. MUGIKORRA  
DEI MUGAGABEEKIN

**39'90**  
€/HILEAN  
(BEZ barne)

BETIRAKO. IGOERARIK GABE!  
Alta ematea eta instalazioa **DOAN**

## EXTRAK:

*\*Tarifa orokorretara gehitu daitezkeen aukerak*

**TV PREMIUM** + **6** €/HILEAN

**2. ETXEBIZITZA**  
FIBRA + FINKOA + **18'90** €/HILEAN  
(Estatuko edozein herrian)

### ·MUGIKOR GEHIGARRIAK

**5Gb** + **3** €/HILEAN  
DEI MUGAGABEEKIN

**8Gb** + **5** €/HILEAN  
DEI MUGAGABEEKIN

**25Gb** + **8** €/HILEAN  
DEI MUGAGABEEKIN

\* KONTSULTATU DENDAN ESKAINTZA BEREZIAK



MÁSMÓV!L

**LIZKER**  
INFORMATIKA

Atzeko kale 32, OÑATI · Tel.: 943 090 600 (Aitor)

# AGENDA

Kultur ekitaldiei buruzko informazioa eta sarrera salmenta  
www.oñati.eus webgunean (QR kodean) edo Txokolateixan



## BERTSO SAIOAK

URTARRILAK 5 / 22:30

### ERREGE BEZPERAKO BERTSO SAIOA

Ametz Arzallus, Maialen Lujanbio, Urko Arregi, Alaia Martin eta Andoni Egaña.  
Gai-jartzailea: Txinparta Bertso Eskola.  
Sarrera: 10€ Zubikoa kiroldegian

## KONTZERTUAK

URTARRILAK 6 / 13:00

### MUSIKA BANDA - 'KLASIKO HANDIAK'

Denboraldiko bigarren 'Gutiziak' saioa eskainiko du. Klasiko handien obra eza-gunien moldaketak interpretatuko dituzte.  
Zubikoa pilotalekuan

URTARRILAK 9 / 19:30

### WOOD STRINGS

Rock akustikoa egiten duen Aretxabale-tako taldearen kontzertua. *Ikatz tabernan.*

URTARRILAK 14

### LEE KORE + LETAGIN + MATRAKATTAK

Oñatiko rock taldeen kontzertua.  
Antixena gaztetxean.

URTARRILAK 15 / 22:00

### THE GUILTY BRIGADE + LIBERTAD CONDICIONAL

Iruñea eta Arrasateko punk-rock taldeen kontzertua. Sarrera: 6€. *Gaztelekuan.*

URTARRILAK 28 / 21:00

### THE NORTHAGIRRES + TURBOFUCKERS

Urretxu eta Bilboko rock taldeen kontzertua. *Ikatz tabernan.*

OTSAILAK 4 / 21:00

### DISCÍPULOS DE DIONISOS + CRAP

Donostia eta Arrasate-Aretxabale-tako taldeen kontzertua. *Ikatz tabernan.*

## ERAKUSKETA

### 'ETA AFGANISTANEN ZER?'



Urgain-Herri Eskolako LH5. mailako ikasleek prestatutako erakusketa interaktiboa. 1970. hamarkadatik gaur egunera arteko hainbat gertaera jorratu dituzte, bai Afganistanen eta baita Euskal Herrian ere. Urte horietan zehar bizi izandako gertaera nagusietan barrena bidaia egiteko aukera izango dugu azalpen, bideo, abesti eta ikasleen ekoizpenen bidez. Urtarrilaren 10etik 13ra egongo da ikusgai (18:00-20:00). *Kultur etxean*

## ERAKUSKETAK

URTARRILAK 17-31 / 18:00-20:00

### 'HABITAT. EZKUTATU DIGUTEN HISTORIA'


Nabarralde antolatutako erakusketa Gidatutako bisitak urtarilaren 17an eta 31n (18:30). *Kultur etxean*

## ANTZERKIA

URTARRILAK 23 / 17:00

### 'PEREZ SAGUTXOA'

Perez sagutxoaren benetako istorioa Glu Glu taldearen eskutik.  
*Santa Anan.*



URTARRILAK 30 / 19:00

### 'NIRE SEMEA PIXKA BAT MOTELAGO DABIL SOILIK'



Oroimena, familia, denboraren joana, ezberdinen onarpena, gaztetasuna, maitasuna, beldurra, bakardadea, gaixotasuna.... bizitzari buruz umorez eta zintotasunez diharduen antzezlan bat. Ttanttaka taldearen eskutik. Sarrera: 10€. *Santa Anan.*

## FORMAZIOAK

URTARRILAK 18 / 19:00

### 'METABOLISMO SOZIALA: BEGIRADA SOZIOEKOLOGIKO BAT'

Aimar Uribealgotok gidatuko du formazio saioa. STH taldeak antolatuta. *Antixena gaztetxean*

## IKASTARO-TAILERRAK

URTARRILAREN 22TIK AURRERA

### ENEAGRAMA ETA GARAPEN PERTSONALA

10 saio izango ditu tailerrak. Hilean bat. Oñatiko Yoga Eskolan. Informazioa eta izen-ematea: [lourdscid1@hotmail.com](mailto:lourdscid1@hotmail.com) / 635710616.



Ramon Irizar kalea, 3  
Tel: 943 71 61 60

[etxian@etxian.net](mailto:etxian@etxian.net)  
[www.etxian.net](http://www.etxian.net)



Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • [garibai@garibai-aroztegia.com](mailto:garibai@garibai-aroztegia.com)  
[www.garibai-aroztegia.com](http://www.garibai-aroztegia.com)







(\*) Itten: arrastua, pistia

## AURREKOMENDIKO — SARRAMENDI BASERRI INGURUKO — HIRU ITTURRI

### 1) Txikin-iturri

Torrealdetik gora doian porlan-pistia hartu eta hari segiu ezkerre Sarramendiko azpikaldeko soromuturreraño, puntukotxe bidiaren ezkeraldian erromaratxo bat topauko dozu; haren ostian dago, hain justu be, hain izen politta dakon itturrixa, *Txikin-iturri*, auzoko lehengo eskolia baiño berrehun bat metro lehenago.

Askaatxuan ura eta onduan kristalezko basua euki arren, ikusten da aspalditxo ezjala ebalten, narraz betetako ondoko albergiak hala irakusten dauenez. Puxetarrixa be albergiaren inguruan dago, eta hori be antzeko egoeran: sasixak eta narrak hartuta, denpora askuan ifork ikutu eztauen seiñale.

*Txikin-iturri* lihorre garaixan agortu egitten da (izenak berak be holako zoezer adierazten dosku). Eta bertatik ura hartzen euen Sarramendi etxeak eta eskolako maisuak, 1923tik 1948ra han auzoko eskolia egon zan bittartian, eta kaletik etorten ziran basomutilak, mendizaliak, perretxiko-batzaillak, kazarixak eta abarrek.

**Berbategixa:** Askaatxua: pesebre pequeño;

**Albergia:** alberca, abrevadero;

**Puxetarrixa:** piedra donde se limpia la ropa.

Argibidiak: Sarramendiko Migelanjel Kortabarria.  
Eskerrik asko!



Goixan,  
Sarramendi  
baserri inguruak  
edurtuta.  
Behian,  
*Txikin-iturri*  
iturrixa

### >> JAKINGARRIXA

Zoritzarrez leku-izenetan galera haundixa suertau da azkeneko bi belaunaldi edo jeneraziñotan. Ia ba asmaitten dozen zela esaten osten gure gurasuak leku-izen honeiri. Horretarako lotu oraingo izenak lehenagokuakin.



#### ORAINGUA

1. Triana / Mikel Aozaratza kalia
2. Casablanca
3. Zahorreko kruzia
4. Potorrosin
5. Arrano txabolía (Aurrekomendin)
6. Atxulo
7. San Elias
8. Aloña
9. Urrexola aldera joten dauen Aizkaiñeko ubidiaren urteeria
10. Uvia (V letria)

#### LEHENGUA

- A. Altzibar (paraje guztiari)
- B. Itsusabeko edo Atxuloko bentania
- C. Uxuxako bokia
- D. Goribar
- E. Lekunbarri
- F. Osiñurdin
- G. Gorgomendi edo Aloñamendi / Haitzondua edo Aloñako haitza
- H. Haranetako sendia (Urrexolatarrendako)  
Andetako sendia (Araoztarrendako)
- I. Argileku
- J. Sandali

## ANTXIÑAKO FOTOGRAFIAK



### San Sebastian Oñatin

Hirugarren gizaldixan Milanen jaixotako **soldadu erromatar hau** mailla oso altura heldu zan kristandadian santu eta martirixen artian. Aurretik Diokleziano **enperadoriaren konfiantzazko kapitana** be izan zan. Baiña **enperadoriak**, Sebastian kristau sutua izanik, bere fediarri gogor eusten otsala konturatu zanian, amorratuta, bere militarrik estimatuenetakua **geziz zulatuta hilttia aginddu eben**. Hala eta guztiz be, etzan berihalakuan hil, eta hori millagrotzat hartu euen askok. Orduan Dioklezianok, bere onetik urtenda, zigor izugarrixa ezarri otsan Sebastianeri: Erromako zirkuan, jente danaren aurrian, akabo arteraiñoko egurtua emutia. Hartara **martirixo bikoitza** sufridu bihar izan eben.

Horrenbestez, ba, ixa hasieratik, eta apostolua izan barik, **santurik famauenetakua bihurtu zan** Sebastian eliza katolikuan, eta menderik mende iraun eben bere ospiak. Martirixuaz gaiñera, beste arrazoi bat egon zeiken hartarako: aspaldittik, **San Roke-ekin batera, izurritien kontrako zaindarixa izendatua** izan zan. Oraintxe letxe, heriotza mordua ekarten euen leku askotara, takian-potian, batera eta aguro zabalketan ziran peste eta gaitz bildurgarrixak. Txertuen faltan, beste erremedixo batzuk billatu bihar izaten ziran, edota santu berezixen babesa, hau da, San Sebastian eta San Roke. Horregatik alkarrekin agerketan dira bixok gehixenetan, ezker-eskumatan, parrokixa eta ermittetako altara eta erretauletan.

**Oñatin**, Sebastianek bere izeneko ermittarik euki ez arren, **hainbat tokittan topau geinke bere irudixa**. Samur asko ezauketako modukua da, gaiñera: **zutik, erdi pillosik, poste edo arbola bateri lotuta, eta gorputza geziz jositta**. **San Migel parroki-xan**, batetik, **altara nagusiko erretaula barrokuaren goixenian agiri da**, ezkerreko ertz batian; eta bestetik, erraja artian dagueu **unibersidadeko kapilliaren erretaula plateresko bikaiñaren goiko aldian**, eta hemen be ezkerretik. **Sancti Spiritus unibersidadeko kapilliak** beste erretaula plateresko eder bat dako, San Sebastianekin hirugarren kalian eta erdi aldian. Hiru erretaula honeittan, illara berian, San Roke agerketan xaku, baiña aparte. Eta **San Martingo ermittako eskumako altaran** be ikusiko dogu San Rokeren onduan.

Herriko parrokixa nagusixa Erdi Aruan moduketiari ekin otsainian, hasierako zatixa **San Sebastianen nabia** moduan izentau ei zan. Baita plaza aldera emuten eben atia be, orain itsututa, tapauta dagueua. **Antxiña**, San Migel beraren aurretik, **Oñatiko patroia** soldadu martiri hau izan zala uste dauenik ba ei da. Esan daigun azkenik, **gure herriko prozosiño famauenian**, Korpuztietakuan, **bizkar gaiñian** eruaten dittuein santuen artian dagueua San Sebastian.

Prozosiñoeko argazkixak Jexus Irizarrek eskuratu dosku; eta unibersidadeko kapillako irudixak Pedro Etxeberria eta Xabier Martiarenaren **Oñatiko unibertsitatearen kaperako erretaula** deritzon liburutik hartuak dira. Milla esker!

# 2022an ere Eskola-Kirolari arnasa ematen

Zorionak eta Urte Berri On



Oñatiko  
**Eskola Kirola**



**LANA**



**ULMA**

**FAGOR**



**Natraoñati**



**Oñazintzika**  
Auzoetako Taldeak Taldea



**TRAUTI**  
hasun gabe!



**LABORAL**  
kutxa



**sustrai**  
FRUTA-DENDA